


# Ihesi

ARITZ GALARRAGA

Euskal Herria ezagutuz:  
**Hondarribia (Gipuzkoa)**



## Magal bete xenda

Zer esango dizu hondarribiar batek, bazter eder askoak dituela bere herriak. Kontu ezaguna da, bestalde, bazterrok zapaldu dituenarentzat: alde zaharra, arrantzale auzoa, hondartza-itsasoak. Entzuna izan arren, ezezagunago izango du, akaso, edo ez hain ibilia, mendia, Jaizkibel, eta Hondarribia aldera erortzen zaizkion magalak. Herriaren zaratotsengandik aparte, hainbat xenda ditu ibiltzeko bake santuan.

JAIZKIBEL HORTXE DU Hondarribiak, atzean, giza joan-etorrien bizkarrean. Aurrera doan herria izateak hori du, atzera gutxi begiratzen dela, are atzeko horrek eguzkia behar baino lehen ezkututzen badizu, hodei beltzak ekartzen ez dizkizunean. Batzuk-batzuk, baina, konaturatu dira hor dagoela Jaizkibel eta

jarri diote pintxo saritu bati bertako airea. Mendian arnastea zail eta eskerrak jartzen diguten platerean. Baina oraindik mendira joaten den idealista horietakoa bazaitugu, egizu proba, ausartu Jaizkibelekin, sartu hara-hona ibiltzen duten hainbat zainetako batean. Hartuko duzu sorpresa.

Orain urte gutxi txukundu zituzten, eta markatu, xenda horietako bederatzi, sakon ezagutzeko Jaizkibel mendiak Hondarribiari eskaintzen dizkion magalak. Itsasertzekoak batzuk, mendi-mendikoak besteak, alderik alde egingo duguk hegia, pare bat xendatako zatiak ibilita. Jaizkibelen ipar-ekial-

**Higerretik abiatuko dugu txangoa: itsasargia, bainurako kala gordeak, ikuspegi ezin ederragoa. Atzean utzi beharrekoak horiek izanik ere, sorpresa berriak eskainiko dizkigu bideak.**



DANI BLANCO

HONDARRIBIKO UDALAK UTZIA

detik hasiko dugu bidea, Jaizkibelek izena galtzen duen lekutik. Itsasora erortzen baita mendia, uretan sartzen lurra Higerreko muturrean. Hasi bezala buka daiteke ibilbidea hemen, atzetik aurrera egin artikulua hau, deabrua bera agertuko den beldurrik gabe.

Higer, itsasargia, bizpahiru taberna, kanpina, bainu hartzeko kala ezin hobeak. Abiatzeko leku aproposa, esango du alferrak. Asturiagako hondartza, adibidez, erromatarren garaiko portua, aztarnak daude ikusgai Irungo Oiaso museoan. Gaur egunean belaontzi, urpekari, eguzki zaleak. Bainu salbai eta lasaiagoa nahi duenak baina, aski du itsasertza apur bat kurritzea, Artzuko errotaraino, besteak beste. Eta Kai berrian gora egin badugu Higerrera, San Telmoko gaztelua agertu zaigu begien parera. Piraten gaztelua, garai bateko beharrak bazter utzita baserri lanetarako egokitu XIX. mendearen erdi aldera, ez ditu galdu gaztelu baten ezaugarriak, dorre-areta tarteko. Baina utz dezagun behingoz itsasertza, hanka zuztarrak beretzeko ordua da eta: C hizkidun xendan barrena, goazen Talaia baserrirantz.

### Guadalupeko Ama

Talaia baserria beranduagokoa da, baina izango du zerikusirik antzina arrantzale kofradiakoei baleak zelatzeko eta eguraldi txarretan



RICARDO GOYOGANA

**Bederatzi xenda txukundu eta markatu dituzte orotara. Jaizkibel mendiaren magaletan barrena nahieran ibiltzeko aukera eskaintzen dute guztiek ere.**

arriskuaz ohartarazteko bertan zuten etxolarekin. Aurrera jarraituta, Saraberdi baserri ondotik, garai bateko auzo-eskola zegoen bidegurutzetik, Gornutzerera desbidera gaitzeko pixka batean, auzoari izena ematen dion baserria ikusteko. Herriko etxe zaharrenetakoa, 1462ko agiri batean agertzen da jada. Juan San Martinen arabera latineko *cornu*-tik heldu zaio euskarari izena, adar itxura baitu inguratzen duen lurmuturrak. Utzitako bidea atzera hartu, Nauskoarri sekula agortzen ez zen aska-iturri agortua pasa, pasa antzina sagardotegia zen Altxako baserria, Guadalupera iristeko aukeran gaude hartara.

Ikurra da Guadalupe hondarribiarrentzat. Bertako ama dute zaindari, hari gurtzen dizkiote gurtu beharrekoak, esaterako, irailaren

8an. Eliza, zelaiak, gotorlekua, tabernak, ikuspegia dira ez galtzekoak. Bidean jarri aurretik, ordea, ez ahaztu Ama Birjinari errezoa egitea, halakorik jakinez gero, behintzat. Gurutzeak ematen du aukera Jaizkibel gainera egiteko, malda pikoa, bigarren karlistadako dorreak ikusteko, edo eskuinetara, Pelloerrotako harizti, gaztainadi eta akazia arteko bidetik, Justitz baserrira iristeko. Kondairak dio Antso Abarka errege nafarra ehizara etorri zela, baina erregea bera izan zela ezustean

harrapatua, hain zen ederra bertako alaba. Alegiak jatetxe, golf eskolari egin dio gaur leku.

Hegiari jarraitzeko asmoa erakutsi dugu eta aldapan behera abiatzeko tenorea da, E xendatik azkar egingo dugu azken tartea. Tristantzahar hondatua, Tristanberri hondatua, Ballestarinea joko dugu hurrena. Garai bateko harrobi, egungo taberna, Santiagotxo ermita du ondoan, Santiago bidean zaindari, eta frontoi kokkor askoa, lau t'erdikoa ere hartuko ez lukeena. Maidaneako zubirantz egitea baino ez zaigu geratzen, Amuteko futbol zelaiaren emateko amaia. Hemendik aurrera, ibiltari, zurea da erabakia: lokomozio erosoena aukeratu, edo bidean atzera egitea, testu honetan barrena. Deabruaren beldur bazara oraino, badaezpada, Guadalupeko Amari eskatu laguntza. ■

